



**IRIZPEN ZK.: D18-002**

**GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINNTZA OROKORRARI LANGILE PUBLIKOEN  
HELBIDEAREN ETA TELEFONO MUGIKORRAREN DATUAK LAGATZEAREN  
GAINEKO KONTSULTA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

*«Gaiari buruzko IRIZPENA egiteko, honi atxikita bidaltzen dizuegu Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak bidali zigun idazkiaren kopia:*

*“Honi atxikita bidaltzen ditut Gipuzkoako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren komunikazioak, non eskatzen duten beherago aipatzen diren langileei buruzko datu jakin batzuk. Langileak Hezkuntza Sailari atxikita daude, eta helburua da komunikazioak langile horiei bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.”*

*Gipuzkoako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren komunikazio horietan (atxikita doan horietako baten kopia) honako datuak eskatzen dira:*

*“Informazioa berriro bidali ahal izateko, zure helbidearen datua helarazteko eskatu behar dizugu. Era berean, komenigarria da gure datu basean edukitzea telefono mugikorraren zenbakia, langileak zuzenean Internet bidez jasotzeko bere lan-bizitza eta kotizazio-oinarriak. Eta lan-bizitzan aldaketarik egonez gero, SMS erako mezu bidez bidaliko dizugu informazioa”.*

*Hori dela eta, jakin nahi dugu ea zilegi den datu horiek lagatzea».*

**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.



## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, aztertuko dugu ea ondo ezkontzen diren administrazio kontsulta-egilearen asmoa eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak.

Zehatz esanda, administrazio kontsulta-egileak eskatu dio Agentziari jakin nahi duela ea zilegi den Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari ematea zenbait langile publikoren helbideen datuak, buelta etorri direlako langile horiei bidalitako kartak. Karta horietan haien lan-bizitzari buruzko datuak zeuden. Era berean, Diruzaintzak uste du *“komenigarria dela”* edukitzea langile horien telefono mugikorraren zenbakiak, *“langileak zuzenean Internet bidez jasotzeko bere lan-bizitza eta kotizazio-oinarriak”*.

### II

Kontsultan planteatutako auzia da ea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendaria zenbait datu pertsonal laga ahal dizkion Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eskatu dizkiolako.

Hori dela eta, hasteko, esan behar dugu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (DBLO) dela datu babesari buruzko erreferentziazko legea. Lege horretan daude araututa zein printzipio eta baldintza bete behar dituzten erakundeek, euren jarduera burutzeko datu pertsonalak bildu beharra dutenean, datu pertsonalok jaso eta tratatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan beste lege honek osatzen du 15/1999 Legea: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

Beraz, datu pertsonalak komunikatzea dakarren kasu bat dugu esku artean. Datuak lagatzeko arau orokorra DBLOren 11. artikuluan dago jasota: datuak hirugarren bati komunikatu ahal izango zaizkio bakar-bakarrik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko, eta interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du (DBLOren 11.1 artikulua). Gainera, datuek zein xede izango duten edo datuak komunikatu nahi zaizkion subjektuak zein jardueramota duen azaldu beharko zaio datuen titularrari (11.3 artikulua).

Arau orokorrak salbuespenak ditu eta 11.2 artikuluan daude jasota. Guretzat aipagarriena a) letra da, esaten duelako ukituaren adostasuna ez dela beharko lege izaerako arau batek baimentzen badu lagapena. Legea, lege orokor bat izan daiteke, esparru batekoa ala DBLO-Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa ere izan daiteke; izan ere, azken horrek baimendu egiten baititu administrazio publikoen arteko datu lagatzeak, datuen komunikazioa eskumen berberak edo esparru material bereko eskumenak egikaritzeko egiten bada [DBLOren 21. artikulua eta abenduaren 31eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartu zuen DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 10.3 c) artikulua].

Egin diguten kontsultari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari informazio pertsonala eskatu diote, eta zuzendaritza horrek kontsulta bat egin digu. Informazioa eskatu duen administrazioa, ordea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra da.



Esku artean dugun informazioaren arabera, ez du ematen DBLOren 21. artikulua gaitu dezakeenik administrazio kontsulta-egilea bertako langile batzuen datu pertsonalak (helbidea eta telefono mugikorraren zenbakia) komunikatzeko administrazio eskatzaileari, zeren komunikazioa ez baita egingo eskumen berberak edo gai berari buruzko eskumenak gauzatzeko.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren (GSL0TB) 74. artikulua dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra *“nortasun juridiko berekia duen zerbitzu erkide bat da, zeinean, elkartasun finantzarioaren eta kutxa bakarraren printzipioak aplikatuta, finantza-baliabide guztiak batzen baitira, aurrekontuko zein aurrekontuz kanpoko operazioen bitartez. Bere kargura izango du funts, balore eta kredituen zaintza, bai eta arreta orokorrak eta Gizarte Segurantzaren sistemako betebeharren eskubideak eta ordainketak biltzeko zerbitzuen arretek ere”*.

Lege testu horretan jasota dago zein kasutan den zilegi datu pertsonal jakin batzuk komunikatzea Gizarte Segurantzako Administrazioari, ukituaren adostasunik gabe:

1.- Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 10. artikulua izenburua da *“Finantza-entitateen, funtzionario publikoen, profesional ofizialen eta agintarien informatzeko eginbeharra”*. Artikulu hori Gizarte Segurantzaren Sistemako Arau Orokorren atalean dago, eta premiamendu bidezko diru-bilketa arautzen du. Eta 6. zenbakian ezartzen du, besteak beste, administrazio publikoek, eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenek edo horiekin elkarlanean aritzen direnek nahitaez eman behar diotela Gizarte Segurantzaren Administrazioari administrazio horrek behar duen adina datu, txosten eta aurrekari, likidazioak egiteko eta dirua biltzeko eginkizunak zuzen bete ditzan.

2.- Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 71. artikulua 1. eta 2. zenbakiek (Gizarte Segurantzaren Kudeaketari buruzko kapitulua) xedatzen dute noiz eman behar zaien informazioa, interesdunen adostasunik gabe, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten entitateei. Eta emandako informazioa soil-soilik erabiliko da Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei prestazioak kudeatzeko esleitutako eginkizunen esparruan.

Horrekin lotuta, 71. artikuluko 1. zenbakiko **c) letran** aurreikusitakoaren arabera, enplegatzailek (edo enpresarioak, hala dio lege testuak) nahitaez eman behar dizkiete Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei honako hauek: langileen izen-abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakiak edo atzerritar-identifikazioaren zenbakiak edo helbideak, komunikazioak sistema elektronikoen bidez egin ahal izateko, komunikazioak egiteko sistema horiek bermatzen dutenean komunikazio-prozedura bizkortasunez egingo dela enpresetako langileen Gizarte Segurantzaren prestazioen aitortzean eta kontrolatzean.

Bestalde, 71. artikuluko 1. zenbakiko **d) letrak** xedatzen du Estatistikako Institutu Nazionalak udal-eroldari buruzko helbide-datuak emango dizkiela prestazio ekonomikoak kudeatzeaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, datu horiek lotura izan dezaketenean edozein prozeduratan prestazioetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo deuseztatzearekin; horrez gain, Gizarte Segurantzaren sistemako datu-baseetan dagoen informazioa eguneratzeko datuak ere emango dizkie Estatistikako Institutu Nazionalak.



Bestalde, Lege Orokorraren Testu Bateginaren 299. artikulua dio, helbideari dagokionez, langileen eta langabezia-prestazioen eskatzaile eta onuradunen betebeharra dela autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoei zein Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinarazpenak egiteko helbidea ematea, eta, hala badagokio, helbide-aldaketa adieraztea ere bai, hori gertatzen denean.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra onetsi duen urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege-dekretuak dio enpresarioak langilearen helbidea eman behar diola Gizarte Segurantzari hasierako afiliazio eta alta eskabideetan eta geroko altetan ere bai, baina ez du aipatzen langileen telefono mugikorra (24. eta 40. artikulua).

Eta 84/1996 Errege-dekretuak berariaz dio enpresarioak nahitaez jakinarazi behar diola Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri afiliazioa gauzatu zenean emandako datuek gerogarrenean izan dituzten aldaketak ere bai (28.1 artikulua), eta bete behar hori bete ezean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra horren berri eman beharko diola Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileari, dagozkion ondorioetarako (28.3 artikulua). Bestalde, 30. artikulua arautzen du, beste gauza batzuen artean datuek dituzten aldaketen eskabideak egiteko modua, epeak eta lekua; eta laugarren zenbakiak dio artikulua honek arautu gabeko alde guztietan, erregelamendu honen 28. artikuluan xedatutakoak arautuko ditu aldaketak, alta-eskabideetan langileen inguruan jasotako datuei begira.

Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean (GSLOTB) eta 84/1996 Errege-dekretuak araututakoa ikusita, esan behar da badagoela legezko betebeharrak bat interesdunen adostasunik gabe helbidea komunikatzeko Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri, baldin eta bi arau horietan xedatutako betetzen bada. Aitzitik, langileen adostasunik gabe langileen telefono mugikorraren datua komunikatzea ez dago jasota Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean (GSLOTB) eta 84/1996 Errege-dekretuan ere ez.

Kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra nahi duela enplegatzaile publikoak ematea hainbat langile publikoren zenbait datu, tartean helbidea, hartara, langile horietako bakoitzari bere lan-bizitzari buruzko informazioa bidaltzeko, aztertu beharko da ea nahi hori ondo ezkontzen den aipatutako araudiarekin.

Eta araudia ikusita, Agentziak uste du administrazio publiko kontsulta-egileak nahitaez jakinarazi behar du helbidea, dakienean aldatu egin dela langile publikoa alta eman zuenean edo geroago adierazi zuen helbidea.

Langile publikoen telefono mugikorraren zenbakiaren datua eskatu dutela eta, interesdunen adostasuna beharko duela administrazio kontsulta-egileak, datu pertsonal hori komunikatu ahal izateko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri.

Edozelan ere, administrazio kontsulta-egileak, administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioarekin bat, esan egin ahal die ukitutako langile publikoei Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra haiekin harremanetan jarri nahi duela lan-bizitzari buruzko informazioa helarazteko.